

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- **Idatzizko azterketak bi proba ditu.**
- **3h 10 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN PROBA</p> <p>Lau ariketa dauzka. Laurak egin behar dira. Lau irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</p>	60-70 min.	20	10
<p>IDAZMEN PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	120 min.	30	15

- **Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, zuretzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

4. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

IRATXE ESNAOLA

Zorretan nago Iratxe Esnaola (Arribillaga) informatika-ingeniariarekin, software librearen defendatzailea bera, ekimen herrikoiei atxikimendua eskainitakoa eta hainbat medio eta elkarteren kolaboratzaile izateaz gain, dotEUS proiektuko koordinatzaile ere badena, besteren artean.

Ez dut zarauztarra ezagutzeko plazerrick izan, baina bai bestelako asebetterik hari esker, izen-abizen berberak izateko zoriak ni harekin nahastea ekarri baitu biok prentsan jarduteko dugun ohitura medio. Aldiro dibertitu naute nahasmenok. Izeba maite batek irratian hizketan entzun ninduela esan zidan behin, eta ez nintzela ni arrapostu nionean, deskuidatua nintzela argudiatuz amaitu zuen eztabaida modu xarmangarri eta hunkigarrian, nik uste. Beste behin, Radio Euskadin egin zidaten elkarrizketa. Grabazioa Interneten zintzilikatzean haren lagungarri Arribillagaren argazkia paratu zuten. Berriki bere errenta-aitorpenerako agiri bat iritsi zait etxera.

Plazerez dakusat nahastea handitzen, prentsan urlia edo sandia aipatu zuena ni al nintzen galdetzen didaten adiskide nahastuekin solastatzean. Ohartua nago hark bi abizenez aurkeztu ohi duela bere burua, amaren abizenari leku eginez, nonbait, argitasunaren alde egitearren, akaso, ezagutzen ez dudan arrazoiren baten sostengu, bestela. Bigarren abizenik aineratu gabe erantzun ohi dut nik, ostera. Noiz eta zergatik erabaki nuen aitaren senditik jasotako deiturarekin korrituko nituela liburu-azalak eta testuen oinak?

Gogorapenean izan ohi ditut orain gutxira arte gizonezkoei esleitzen zitzaaien literatur jardunean kortse sozialek eraginiko destinetik ihes egiteko estrategiak baliatu izan dituzten emakume idazleak. Ezizenez sinatzera edo beren izena senarraren abizenari atxikitzen behartuak, anagramak zein piktogramak asmatzera emanak, bestela. Genealogia horren baitan ezin uka izen-abizenez sinatzearen garrantzia, eta aitaren eta amaren abizenaren artean aukeratzerakoan, arrazoi andana izan badute hamaika emakumek aitarena beren bizietatik erauzteko. Berdin, emakume ez direnek sufrituen margen zabaletik.

Pedro Lemebel idazle txiletarra datorkit gogora: «Lemebel femeninotasunerako aliantza dut, amaren abizena inskribatzen dut ama *huacha* onartzeko nire ilegaltasun homosexualetik eta trabestitik». Baina nire *legaltasun* lesbierretik zer munta du sinbolikoki amaren abizena baliatzeak hark ere aitarenetik jaso bazuen berea, eta berdin amonak? Aitor dut inertziak hautatu nuela lehen abizena eta gaur-gaurkoz aldakortasunean jar nezakeela gakoa. Batean batekin sinatu, hurrena bestearekin, hurrengoan biekin, nahi bada, aldika ordena aldatuz. Baina nago, ezizenen moduan atentzio estra erakartzen dutela hitz-jolasok gure txikian. Nolabait, kuxkuxean jarduteko grina pizten du identifikatze-nahiak, eta aitor dezadan, nahaste-borrasteok betiketoeak tentatzen nau ni. Irudikatzen dut hirugarren Iratxe Esnaola bat dugula gure artean, zarauztarraren eta nerongandik aparte bizi den Iratxe Esnaola birtuala, prentsan eta Interneten bizi den kreatura zibernetikoa, lau eskutara osatzen diharduguna. Izatez, sarean dagoen orok du bere izen-abizenezko kreatura birtuala, kaleko haragizkoa ez dena, eta anitzetan, kalekoaren iritzi berak ere ez dituen birtualtasunaren gortinaren atzean. Izena duenak ba omen du izana. XXI. mendeko izen birtualak fikziozkoa du izana. Eta Iratxe Esnaola fikziozkoak, ama baten lekuan bi ama.

ESNAOLA, Iratxe. Argia, 2013ko maiatzaren 12a. Egokitua.

1. Zerk ekarri du nahasmena?

- a) Hedabideetan ezizen bera erabiltzeak.
- b) Izena berbera izanik, biek lehen abizena aitarena erabiltzeak.
- c) Kazetari bien arteko lankidetzeta-harremanak.

2. Nola hartzen du nahasmen hori Iratxek?

- a) Atseginez, alde ludikoa ikusten diolako.
- b) Plazerez, buruhauste dezente eragiten dion arren.
- c) Gustura, propio hartutako erabakia izan baitzen berea.

3. Zer dela eta erabiltzen du Arribillagak amaren abizena?

- a) Zalantzak uxatzearren.
- b) Beste abizenik ez aireratzearren.
- c) Ez dago arrazoi zehatzik.

4. Zer dio abizenak aukeratzeari buruz?

- a) Beharrak bultzarazten dituela emakume asko aitaren edo gizonaren abizena jartzera.
- b) Emakume ugari uko egiten diotela orain arte hain errotuta egon den aitaren deiturari.
- c) Emakumeek sufritu dutela, hein handi batean, aitaren abizena aukeratu behar izana.

5. Zer dio testugileak bere abizen-aukeraketaz?

- a) Beste barik aukeratu zuela aitaren abizenarekin sinatzea.
- b) Usadioari jarraitzeko borondatea izan zuela irizpide nagusi.
- c) Amaren abizena erabiltzea sakondu gabeko erabakia izan zela.

6. Zer ondorioztatzen du Iratxek?

- a) Abizenak izateko modua baldintzatzen duela.
- b) Sarean dabilen orok duela azken finean benetako bizitza.
- c) Izena eta izana ez direla zertan uztarturik joan.

4. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa: identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Esan testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Oharra: aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

EUSKO JAURLARITZAKO DOKUMENTUAK ESTANDARIZATZEKO PROIEKTUA

7 Aplikazio informatiko erraldoiak jar ditzakegu martxan, bai; baina erabili beharreko hizkuntzan asmatzen ez badugu, alferrekoak izango dira ahalegin horiek guztiak.

Administrazio digitala ezartzen ari gara poliki-poliki, eta gaur egun herritarrak ez du zertan administrazioetako bulegoetara etorri zenbait izapide egiteko; nahikoa du ordenagailua piztu, eta etxetik bertatik dena delakoa galdetu, eskatu edo azalduta. **8** Azken batean, herritarrak ez badu inor bere aldamenean bere zalantzak argitzeko, komunikazioak huts egin dezake. Arazoa areagotu egiten da euskararen kasuan; izan ere, euskarazko bertsioa ulertzen ez duenak hizkuntza aldatu besterik ez du egin behar, betiere euskararen kalterako.

9 Gainera, dokumentu horiek gehienak ez daude behar bezala prestatuta modu digitalean erabiltzeko, eta hori gutxi balitz, erakunde bakoitzak «bere» dokumentuak erabiltzen ditu, eta askotan, erakundearen beraren baitan ere hainbat eredu izaten dira gauza bera egiteko.

10 Jakin badakigu zein diren Administrazioan gehien erabiltzen diren prozedurak (diru-laguntzak, kontratazioa, erregistroa...). Badakigu, baita ere, zein diren prozedura horiek aurrera ateratzeko eman beharreko urratsak (deialdia egin, buletinean argitaratu, eskabideak jaso, erabakia hartu...); eta badakigu, era berean, zein diren urrats horietako bakoitzean erabiltzen diren idazki motak (deialdia, eskabidea, akta, erabakia, errekurtsioa...). **11**

Labur bada ere, saiaturako gara lan egiteko metodologia azaltzen. Esan dugun bezala, administrazio- prozeduren inguruan antolatuko da proiektua. Batzordeak adostutako egutegiaren arabera, IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atalak kasuan kasuko idazkiaren proposamena egingo du (euskaraz, gaztelaniaz eta ele bietan).

Jaurlaritzako sail bakoitzean lan-talde bat sortuko da eta talde horiei epe bat emango zaie beren sailetan erabiltzen den idazki hori (berezko ezaugarriak dituen) moldatzeko, IVAPek proposaturiko ereduaren arabera (gramatika, estiloa, terminologia eta diseinuko irizpideak aintzat hartuta). **12** Hori gertatzen denean, prozedura hori estandarizatutzat emango dugu eta prest egongo da, beraz, Eusko Jaurlaritzako plataforma digitalean (PLATEA) sartzeko. Prozedura hori amaiturik, hurrengoari ekingo zaio, eta horrela jarraituko da, prozedura-familia guztiak amaitu arte.

Eusko Jaurlaritzako Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak (IZO) estandarizazio-proiektuaren erritmoari erreparatuko dio, aurrerantzean zer itzuliko duen eta zer ez adierazteko orduan.

13

Eusko Jaurlaritzako dokumentuak estandarizatzeko proiektuak balio izango du, zalantzarik gabe, Administrazioaren hainbat helburu uztartzeko: zerbitzu elektronikoak garatzea, prozedurak bateratzea, Administrazioko hizkera sustatzea, euskararen normalizazioa bultzatzea, hizkuntzaren erabilera sexista ekiditea... **14**

LOZANO, Joseba. Administrazioa euskaraz, 2012ko urria. Egokitua.

■ 2. ariketa. Erantzun-orria

- A.** Espero dut inor ez haserretzea esaten badut, oro har, administrazioetako idazki askoren hizkuntza-kalitate komunikatiboa oraindik ere eskasa dela, bai euskaraz, bai gaztelaniaz; eta horretan Eusko Jaurlaritzaz ez da salbuespena.
- B.** Hori guztia jakinda, Koordinazio batzorde bat osatu da (Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta IVAP kide direla), eta batzorde hori lanean hasi da proiektuaren planifikazioa egiteko (helburuak, lehentasunak, epeak, arduradunak...).
- C.** Administrazioa aro digitalean sartzen ari da eta horrek komunikazio behar berriak dakartza ezinbestean.
- D.** Eta garrantzitsuena: proiektu honi esker, herritarrek Administrazioaren kalitateko zerbitzu elektronikoak baliatu ahal izango dituzte.
- E.** Bide horretan sakondu nahi badugu, garbi dago administrazioek erabiltzen dituzten dokumentuek inoiz baino ulergarriagoak eta erakargarriagoak izan behar dutela.
- F.** Alegia, prozedura bakoitza estandarizatzen den mementotik aurrera, IZOK zilegitasun osoa izango du esateko prozedura horretako idazkiak aurrerantzean ez dituela itzuliko, begibistakoa baita idazki horiek guztiak ordurako ondo landuta izango direla sail guztietan.
- G.** Jardunez hobetzen den neurrian, euskarara itzulitako produktuen kalitateak gora egin duela jakina da. Alabaina, euskal kulturaren esparrua ez da zabalegia, eta gutxi dira itzulpenak.
- H.** Horretaz jabetuta, Eusko Jaurlaritzak proiektu bat jarri du abian, gure dokumentuak egokitu eta estandarizatzeko.
- I.** Horrela egingo dugu aurrera, idazkiz idazki, harik eta dagokion prozedura (diru-laguntzak, esaterako) osatu arte.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	7	8	9	10	11	12	13	14
Testu zatiak								

4. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa: aukera anitzeko galderak.

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

MEDIKU JAUNA: BOTIKA GEHIAGO EZ, ENTZUTEKO ESKATU DIZUT

Mediku asko botiken hornitzaile bihurtu dira, osasun-sisteman espezialista larregi eta jeneralista gutxiegi da, doktoreek teknologia asko darabilte, baina denbora laburregia daukate gaixoentzat, familiako sendagileei sistemak arreta gutxi eskaintzen die garrantzitsuenak izanagatik... Mediku kritikoak dira horrela mintzo.

Etxeko medikua ez dago modan. Teknologiarik sofistikatuenak darabiltzaten doktoreak azaltzen dituzte hedabideek. Espezialistak baino hiperespezialistak, terapiarik garestienen jabeak, robotekin operatzen edo saguaren gehi gizakiaren geneen manipulazioz ekoizitako injekzioz «txutatzen» zaituztenak.

Zure ohiko medikua, aldiz, familiako edo etxeko medikua, ohikoa, jeneralista, kabezerakoa... horri esku artean daukan sendabiderik ahaltsuena kamusten diote egunetik egunera. Ez dira aditzen entzuten dakien eta humanista den etxeko medikua aldarrikatzen dutenen ahotsak, horretarako arrazoi sendoak azaltzen dituzten arren.

Sekula sobera famatuko ez dugun *Pharmacritique* gunean bi elkarrizketa mamitsu plazaratu ditu Pierre Biron mediku eta irakasle erretretatu quebecarrak. Farmaziako multinazionalak medikuen jakintza nola desbideratzen duten azalduz artikuluak plazaratuak dituen Bironek, elkarrizketa birtual moduan laburbildu ditu –Bironek berak egin ditu galderak eta erantzunak– mediku batek eta soziologo batek lanbidez idatzi dituzten liburuak.

Marc Zaffran doktoreak, eriekin egindako lanaz gain, liburu andana argitaratu du 80ko hamarkadatik gaur egunera arte, asko fikziozkoak, Martin Winckler ezizenez. Zaffranek azkena ondo ezagutzen duen errealitateaz egin du: *Profession, médecin de famille*. Desagertze-bidean dirudien lanbide funtsezkoaz, alegia.

Zaffranen esanetan, familiako medikuntzak maila handia eskatzen du jakintza zientifikoan eta harremanetan, baita sormena ere: «Espezialitate guztien artean, familiakoa da zirrargarriena eta esker onekoena».

Baina bide gogorra egin behar da ofizioa ikasteko, unibertsitatean eta ospitaleetan ikusitakoetatik oso bestelako gaixoekin egiten delako topo egunerokotasunean. «Oso gutxi dira liburuetan azaltzen diren sintomak bere horretan aipatzen dituztenak. Oso bestela, sintoma bitxiak kontatzen dituzte, ulertezinak, hitz nahasitan azalduak... ».

Ospitaleko kontsulta batetik gaixoak fite egin nahi omen du hanka; etxeko medikuarenean ez du alde egiteko presarik. Eriak eskatzen duen estreinako gauza denbora da, entzun diezaiotela.

Haragizko gizon eta emakumeok ez omen dugu sufritzen unibertsitateko liburuek deskribatzen dituzten kategorien arabera. Sarritan medikuak zerbait emango dio emateagatik eta denborarekin sendatu egingo da. Bestean ez daki nola asmatu.

«Medikuak ez dakiena gaixoak erakutsiko dio», Zaffranen hitzetan. Behin ama batek 12 urteko alaba eraman omen zion, oinaze txiki bat zeukalako sabelean. Zaffran doktoreak baztertu zuen apendizitisa, baina amak horixe izan behar zuela, seme zaharrenak ere izan zuela sintoma berberekin. Agian bakeagatik, espezialistarengana bidali zituen... eta, bai, apendizitisa zen. Amaren bihozkadak arrazoi.

Azaletik ikusita, familiako medikuntzak atzeratua dirudi tresneria eta botika sofistikatuz hornitutako espezialitateen aldamenean. Baina egia oso bestelakoa da: «Teknologien anabasa hori zaintzailearen eta gaixoaren arteko hesi bat da. Biok elkarrekin bide bat adosten badute, orduan teknologien erabilera burutsuagoa da, merkeagoa, ez hain gogorra. Espezialistekiko harremana hain urria izateak dakar gaixoei botika gehiegi kontsumitzea, sobera proba behar izatea, mediku bakoitzak bereak agintzen dituelako».

Pierre Bironen bigarren elkarrizketatua Jean Peneff soziologoa da, *La France, malade de ses médecins* liburuaren egilea. Soziologian Chicagoko eskolaren kideztat jotzen den Peneffek honela laburbiltzen du medikuntzaren gaurko arrisku nagusia: «Betidanik ezagutu den sendagilea hornitzaile bihurtzeko zorian dago». Neurrik gabe agintzen omen dituzte botikak, kontsultak ugaritzen, espezialistengana edo kliniketara bidaltzen, horrela ezinezko bihurtuz gaixoaren osasuna arrazionalitatez artatzea.

Hala ere, beren burua oso bestela zaintzen omen dute sendagileek, Peneffen esanetan. Zuhurrago jokatzeko beren burua diagnostikatzean, botiken erabileran bezala, «batez ere gaixoei hain erraz agintzen dizkieten psikotropikoenean».

Peneff ez da horrelakoak idazten lehena. Aurretik Philippe Meyerrek (*L'Irresponsabilité médicale...*) eta beste askok idatzitakoak bereganatu ditu. «Espezialista gehiegi dago eta jeneralista gutxiegi; horiek, gainera, gaizki banatuak. Jarduera hiperteknikoak garamatza medikuntzak bereak dituen ariketa klinikoaren eta tradizio humanistaren galbidera. Hautaketa-proben espirituan ere ikusten da hori. Gehiegi garatu da medikuntzan dugun fedea; horrek ekarri du tratamendu eta botikak agindu behar hori».

Botikek gero eta pisu handiagoa dute osasungintzaren aurrekontuetan, pisu nagusia. Jendeak ez dio arretarik egiten ez elikatzeko moduari ez eta ariketa fisikoari, medikuek ez diete aski azaltzen bizimodua aldatzeko daukaten premia. Medikuek botikak eta probak agintzen dituzte, eta horrela sustatzen dute sistemaren deriba.

Gaur farmaindustriaren eta klinika pribatuen publizistek dagitena 1923an aurreikusi zuen Jules Romainek, Peneffen iritzian: prebentzioa oinarritu beldurrean, produktu berrien propagandan edo espezialitate teknikoetan. Propaganda, besteak beste, aldizkari espezializatuek egiten dute, iritzi-emaile nagusiek, lanbideen elkarteek eta unibertsitateek, eskuliburuaren egileek, gaixoen elkarteek, eta denek jasotzen dituzte industriaren diru-laguntzak.

Zer pisu duen diruak galdetu dio Bironek Peneffi. «Dirua da motorra (...) kosta ahala kosta, diru asko irabaztea, baita jendeak lanbideari errespetua galduko badio ere, zer esanik ez krisiaren eta langabeziaren garaiotan. Beste alde batetik, agintariak gaizki daude informatuta. Osasungintza ez dute ondo ezagutzen, emaitzak, benetako kosteak, eta horregatik ez dago alor askotan behar bezalako arautzerik, ez ikuspegi etiko garbirik».

Pribatizazioak are larriagotzen ditu arazoak, osasungintzaren gastu handiegiekin estaltzen baita gizartearen oinarritzko beharrak ase gabe daudela. Baina entzun Peneffi: «Jada ez da arriskua, osasungintzaren pribatizazioa gertatu da, sistemaren iluntasunak eragozten digu ohartzea ilunpean nor kudeatzen duen».

ZUBIRIA, Pello. Argia, 2012ko maiatzaren 20a. Egokitua.

15. Zer diote mediku kritikoek?

- a) Osasun-sisteman teknologia ugaritu denez, ez dagoela erabiltzeko denbora nahikorik.
- b) Mediku asko botika-hornitzaile bihurtu direla, espezialista larregi izateagatik.
- c) Sistemak ez dituela aintzat hartzen familiako medikuak beharko luketen legez.

16. Zer dio artikulugileak gaur egungo osasun-sistemaz?

- a) Espezialista larregi egoteak jeneralistek beren lana ondo egitea eragozten duela.
- b) Familiako medikuen eta espezialisten arteko koordinazioa ezdeusa dela.
- c) Ez diela kasurik egiten mediku humanistak izateko eskubidea aldarrikatzen dutenei.

17. Zer jaso du Pierre Bironen Pharmacritique gunean?

- a) Irakasle erretretatu quebecar batek farmazia-multinazionalei buruz idatzitakoa.
- b) Mediku batek eta soziologo batek idatziriko liburuen laburpena alegiazko elkarrizketa gisa aurkeztua.
- c) Soziologo eta mediku ospetsu biren biografiak.

18. Zer esaten da Marc Zaffrani buruz?

- a) Gaixoekin izandako eskarmentuaz idatzi duela.
- b) Literaturan doktorea eta idazlea dela.
- c) Familia-medikua desagertzeaz dagoela uste duela.

19. Zer dio Marc Zaffranek ofizioari buruz?

- a) Alde handia dagoela liburuetan ikasten denetik egunerokotasunean ikusten dena.
- b) Espezialitate gogorra dela familia-medikuntza, ospitaleetan baino arazo hunkigarriagoak ikusten direlako.
- c) Sarritan medikua igarri ezinik ibili, eta inork esandakoari kasu eginda, asmatu egingo duela.

20. Zergatik dio zaintzaileen eta gaixoen arteko hesia dela teknologia?

- a) Teknologiaren anabesak atzeratu egiten duelako familiako medikuntza.
- b) Medikuak sarritan botiketari eta tresnerian oinarritzen direlako, irtenbidea gaixoarekin adostu beharrean.
- c) Espezialistekiko harremanak urriak direnez, tresneria atzeratuta dagoelako, eta botika larregi probatu behar izaten direlako.

21. Zer dio Jean Peneff soziologoak?

- a) Gaixoen artatzea arrazionalago egite aldera, osasun-sistemak prebentzioa, kontsulta eta batez ere botika batzuen banaketa kolokan jarri ditu.
- b) Teknologiaren gehiegizko erabilerak Medikuntzaren berezko ezaugarrien (eriak artatzea eta hurreko tratua batez ere) galera dakar.
- c) Osasuna zaintzeko, espezialistengana jo beharrean, bidezkoagoa dela ohiko medikuntza eta teknologia uztartuz artatzea gaixoaren osasuna.

22. Zer dio Peneffek farmaindustriaz eta osasun-zentro pribatuez?

- a) Aldizkari espezializatuek egiten dutela propaganda, gaixo-elkarteek industriaren dirulaguntzen premia baitute.
- b) Prebentzioa sustatzeko, ezinbestekotzat jotzen dutela izua erabiltzea.
- c) Prebentzioa botikak hartzearekin eta proba diagnostikoak ugaritzearekin lotzen dutela.

4. HE

IRAKURMENA

■ 4. ariketa: aukera anitzeko galderak.

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei. Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HISTORIAK ETA ALDAKETAK

Denok dakigu historia gu jaio ginenean hasi zela. Betidanik egin izan diren gauzak dira gu jaio ginenetik egiten direnak, eta inoiz egin ez direnak, garai beretsuan egin gabe geratuak. Kontua da, hasi ez ezik, bukatu ere gurekin bukatzen dela. Gurekin, orain. Hala interpretatu du psikologo talde batek *Historiaren amaieraren espejismoa* deitutako ikerketa baten emaitza. Historia gaur bertan amaituko dela ematen omen du, jendeak etorkizunean pentsatu gabe zenbat erabaki eta nolakoak hartzen dituen ikusita. Milaka laguni galderak egin ondoren ondorioztatu dute gizabanakoek etorkizunean izango diren pertsonengan eragin izugarria izango duten erabakiak hartzen dituztela orain, eta etorkizuneko pertsona bihurtzen direnean ez zaizkiela interesatzen hautu horiek, edo okerrago, erabat damutzen direla hartutako erabakiez (atzerabuelta zailekoez, batez ere). Eta hori omen da ez ditugulako aintzat hartzen denborak guregan (gure iritzi, gustu, izaera, jarrera, pentsamendu, sentimendu, balio-eskala, lehenetsun gehi gainerako ia guztian) eragiten dituen aldaketak. Alegia, denborarekin denok aldatzen garela. Eta ez itxuraz bakarrik. Eta denok uste dugu ez garela aldatuko. Garen hau izango garela beti eta betiko. Hortik *Historiaren amaieraren espejismoa*-rena. Polita geratu zaie.

Galdera bat izan dute ikerketarako abiapuntu: zergatik hartzen ditu jendeak gero damutzeko moduko erabakiak? Zer ondorioztatu duten argi dago.

Baina ez da pentsatzen dugulako garen bezalakoak izango garela beti. Ez da pentsatzen dugulako orain uste duguna, sentitzen duguna, sinesten duguna ez dela bihar aldatuko. Ez du historiaren amaieraren espejismoarekin zerikusirik. Gehienetan da ez dugulako pentsatzen.

Horixe du gai batekin itsutzeak edo Gilbert ikerlaria eta bere psikologoak izenburuarekin liluratzeak. Pentsatzea eragozten duela.

ITURBE, Arantxa. Berria, 2013ko ekainaren 1a. Egokitua.

23. Zer emaitza atera dute *Historiaren amaieraren espejismoa* ikerketatik?

- a) Gaur egun bizi dugunak asko eragiten duela gerorako erabakietan ere.
- b) Pertsonak, aldatzen ari direla karguturik ere, ez dutela uste etorkizuna hainbeste aldatuko denik.
- c) Zaila dela etorkizunera begirako erabakietan asmatzea.

24. Zer ondorio nagusi atera dute gizakiaren erabakitzeko modutik?

- a) Erabakiak hartzean, patroi berarekin funtzionatzen dugula denok.
- b) Erabakiak hartzean, batez ere oraina izaten dugula gogoan.
- c) Erabakiak hartzean, kontuan izaten dugula geroko onura, bigarren mailan bada ere.

25. Zer iradokitzen du Iturbek *Historiaren amaieraren espejismoaz*?

- a) Edukia interesgarria iruditu zaio, ez hainbeste izenburua.
- b) Izenburua arranditsua gertatu arren, irakurgai gomendagarria dela.
- c) Ikerketak ez diola erantzuten izenburuak eragiten duen interesari.

4. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETAGAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN
BEHAR DITUZU

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez, 250 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Gastu-murrizketak direla eta, jakinarazi dizute Bilboko bulegoa itxi eta datorren hilabetetik aurrera Gasteizera joan beharko duzula lanera. Aldaketa horrek zure bizitzan eragin handia du: kilometro eta denbora mordoa bidean, gastu handiagoa... Gainera, azken unera arte, ez duzu ezer jakin; ez dute zurekin ezer kontsultatu. Zu ez zaude inola ere ados, eta adostasun-eza eta haserrea adierazi nahi dituzu.

Idatzi gutuna saileko arduradunari eta eman erabakiaren gaineko iritzia. Eta erabakitakoak eragiten dizkizun kalteak kontuan, planteatu irtenbideren bat edo beste.

- **2. ariketa:** Idatzi iritzi-artikulu bat Administrazioa Euskaraz aldizkarirako.
 - Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
 - Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
 - Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

1. testu-aipamena

EFIZIENTZIA ENERGETIKOA AUZITAN

Europako hamar errauste-plantatik seik ez dute efizientzia energetikorik. Zer esan nahi du horrek? Hondakinetan dagoen energia berreskuratu beharrean, xahutu egiten dutela; gehiago dela galtzen duten energia, sortzen dutena baino.

Baina zergatik gertatzen da hori? Efizientzia energetikoa oraindik neurtzen ez zenean eraiki zirelako planta gehienak. Europan, pentsatzen zen errauste-plantak efizienteak zirela, hots, hondakinetan zegoen energia elektrizitatea sortzeko baliatzen zutenez, zaborteziak baino hobeak zirela.

2008an hondakinen kudeaketarako esparru-araudia onartu zuen Europak. Harrezkero, hondakinak tratatzeko bost maila daude Europan: prebentzioa da lehen aukera; berrerabiltzea, bigarrena; hondakinetan dagoen balio materiala berreskuratzea, hirugarrena; hondakinen balio energetikoa berreskuratzea, laugarrena; zaborteziak, bosgarrena.

PERURENA, Mikel. Berria, 2013ko otsaila.
 Egokitua.

2. testu-aipamena

LINKEDIN: GIZARTE SARE PROFESIONALA

Gizarte-sareak gaur eguneko komunikazio-tresna ohikoak bihurtu dira. Facebook, Twitter, Tuenti eta bestelakoak ezagunak egiten zaizkigu, entzueraz bada ere.

Baina bada Interneten harreman profesionalen esparrua jorratzen duen gizarte-sarea: LinkedIn. Haren bidez, gure lan-esparruarekin zerikusia duten aditu, profesional, ikertzaile edo enpresekin harremanetan jar gaitezke.

Zerbitzu serioa da, harreman profesionalak bideratzeko helburua duena, ez da aisialdi-gaiez hornitzen.

Merkatu anglosaxoian zein espainiarrean harreman profesionalak egiteko erabiltzen den sare profesional nagusi bihurtu da. Egon badaude mota horretako bestelako zerbitzuak ere, adibidez, Xing, Alemanian nagusitu dena, eta Viadeo, Txinan eta Indian gailendu dena.

TORREGARAI, Idoia eta MARTINEZ, Uxue.
 Administrazioa euskaraz, 2013ko apirila. Egokitua.

3. testu-aipamena

ERRETIRO ADINA LUZATZEA

Erretiroaren adina 65 urtetik 67ra atzeratzeko prozesua hasi besterik ez denean egin, erretiroa oraindik gehiago atzeratzea proposatu du Espainiako Gobernuak.

Iraunkortasun-faktorea izeneko neurrien artean dago erretiratzeko adina atzeratzeko aukera. Pentsioa osorik jasotzeko kotizatu beharreko epea luzatzea ere badago mahai gainean, baita pentsioak ez berritzea ere.

Espainiako Gobernuak dio erreformaren bidez bermatu nahi duela pentsioen sistema publikoa. Demografia kontuak aipatu ditu —jaiotze-tasa behera doala, eta gora, berriz, erretiroa hartzen dutenen kopurua—, baina baita «sistemak sortzen dituen perbertsioak» zuzendu beharra ere; esaterako, batez besteko pentsioak soldatak edo prezioak baino gehiago hazi izana.

Berria, 2013ko martxoaren 24a. Egokitua.

5. testu-aipamena

ERLIJIOA: DERRIGORREZKO HAUTAZKOA

Espainiak eta Vatikanok sinatutako legearen gatibu dago erlijioari buruzko araua hezkuntzan. Bi alderdi ditu legeak: eskoletan erlijioa nahitaez eskaini behar dute, baina umeek nahi badute ematen dute. Ikasgai hori emateagatik ezin da ikaslerik «diskriminatu». Kontua da zer egin Erlijioa hautatzen ez dutenekin; curriculumik ezin dezakete landu ordu horietan, eta, maiz, jardun ludikoetarako erabiltzen dituzte ordu horiek, beste ikasleak erlijioan ari direla. Ez dago edukirik ordezko ikasgai bat osatzeko. Bide bat urratua du Jaurkitzak: Batxilergoan, ordutegiaren amaieran jartzen dute erlijioa, eta aukeratzen ez dutenei libre uzten diete ordua. Hala ere, Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota du hori arautzen duen dekretua.

PERURENA, Mikel.
 Berria, 2013ko otsaila. Egokitua.

4. testu-aipamena

ARTISTAK GIZARTEAREKIN KONPROMETITUAK

Ondoko galdera egiten zion Lander Garrok bere buruari *Un fingidor* artikuluan: «Bizi al da nire lagun idazlea mundua odolusten ari den honetan?». Pentsatzen du Garrok literaturak eta errealitateak antzekotasun gutxi dutela, eta literaturaren akatsa dela hori.

Jean Paul Sartreentzat, adibidez, konpromiso politikorako aitzakia besterik ez zen literatura. Eta Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren ustez, idazleak, pertsona publiko gisa, «erantzukizun publikoa eta politikoa dauka».

Orain 25 urte pasatxo adierazi zuen hori Txillardegik. Idazleak eta konpromisoa. Artistak eta konpromiso soziala eta politikoa. Sasoi hartan, Euskal Herrian behintzat, puri-purian zegoen eztabaida zen. Ziklikoki errepikatzen da, eta egoera sozioekonomikoak plazara atera du berriro.

SUSAETA, Igor.
 Berria, 2013ko maiatza. Egokitua.

6. testu-aipamena

LANEKO BAJAK, LANGILEEN BURUHAUSTE

Dirua aurreztu behar dela eta, langileei bajak eta altak emateko eskumena bere gain hartu du Administrazioak eta kontrol-neurriak zorrotzu egin ditu. Bajan egotea jasanezin bihurtu da askorentzat, langilea susmagarri baita Gizarte Segurantzarentzat, eta medikuen iritziak maiz ez du gehiegi balio.

Kontrol eta aldaketa handienak gertaera arruntetan eman dira; hau da, lanetik at jasotakoetan (istripuetan nahiz gaixotasunetan). Halakoak Gizarte Segurantzak eraman ohi ditu gehienetan, baina osasungintza publikoko medikuek artatzen dute langilea. Medikuek hori zen orain gutxi arte alta emateaz arduratzen zena, mutualitateek eta Espainiako Gizarte Segurantzak gomendioak egin zitzaizketen arren.

GARCIA, Mikel.
 Argia, 2011ko martxoaren 20a. Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

4. HE / IRAKURMENA (A EREDUA)

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: « IRATXE ESNAOLA »

1.	B	4.	B
2.	A	5.	A
3.	C	6.	C

- 2. ariketa: identifikatu testua osatzeko falta diren testu-zatiak
- Irakurgaia: « EUSKO JAURLARITZAKO DOKUMENTUAK ESTANDARIZATZEKO PROIEKTUA»

Hutsuneak	7	8	9	10	11	12	13	14
Testu zatiak	C	E	A	H	B	I	F	D

G aukera sobera dago.

- 3. ariketa: aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «MEDIKU JAUNA: BOTIKA GEHIAGORIK EZ, ENTZUTEKO ESKATZEN DIZUT»

15.	C	19.	A
16.	C	20.	B
17.	B	21.	B
18.	A	22.	C

- 4. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: « HISTORIAK ETA ALDAKETAK »

23.	A	24.	B	25.	C
-----	---	-----	---	-----	---